0 AURREKARIAK

Biscaytik Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako proiektua da, nazioarte mailan izaera berritzaile eta aitzindari nabarmena duena, helburutzat honako hauek dituelarik: komunikazio kanal berri baten bidez, Internet bidez, Administrazioa herritarrengana hurbilaraztea bien arteko elkarrekintza erraztuz; horrez gain, Bizkaiko Udaletako barne-kudeaketa eta herritarrekiko harremana hobetzeko tresna informatikoak homogeneizatzea; eta Bizkaia informazio teknologietan eta Udal Administrazioaren ezagupenean nazioarteko erreferentzia bilakatzea.

Helburu hau betetzeko, proiektuak hiru ardatz ditu,

- Herritarrentzako posta elektroniko zerbitzua.
- Udalerrientzat programa informatikoak eta herritar bideratzea duen web ataria.
- Nazioarteko erreferentziadun Teknologia Zentro bat sortzea.

1 KONTRATUAREN XEDEA

Sarrerak zaintzeko eta kontrolatzeko zerbitzuak kontratatzean eta ematean bete beharko diren baldintza teknikoak definitzea du xede agiri honek, Bake Eder Ezagutza Zentroan dauden pertsonen, instalazioen eta jardueren eta kanpoko elementuen (aparkalekuak, terrazak, lorategiak eta eraikinetarako sarbideak) ukiezintasunari eusteko.

Aurrez aurreko zaintzaren eta segurtasun elektronikoko sistemen bidez emango da zerbitzua.

2 INSTALAZIOETARA BISITA

Lizitatzaileek kontratuaren xede diren instalazioak bisitatu ahal izango dituzte horretarako izendatutako langileen laguntzaz, Biscaytik Fundazioak izendatutako arduradunaren arauei jarraituz, instalazioen funtzionamendu normala eragotzi gabe, betiere.

3 ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA ETA IRISMENA

Segurtasun- eta zaintza-zerbitzua armarik gabeko zaintzako langileek emango dute.

Babes-ekintza prebentziozkoa izango da nagusiki, eta honela gauzatuko da:

- Instalazioak, horietako ondasun higigarriak eta higiezinak nahiz horietan egon daitezkeen pertsonak zainduko dira, horretarako beharrezkoak diren neurri babesleak edo zuzentzaileak hartuz, prestakuntza teknikoaren eta jarduketa-eskuliburuen arabera.

- Sarbideak irekiko eta itxiko dira, arduradunaren jarraibideen arabera.

- Higiezinetarako sarrerak kontrolatuko dira, bai pertsonenak, bai ibilgailu eta materialenak.

- Bisitarien sarrera kontrolatuko da sarrera-tornuetan, bai eta espazioen edukiera ere.

- Bisitariei informazioa eta orientazioa emango zaie, hala eskatzen dutenean.

- Instalazioak eta bulegoak ikuskatuko dira aldizka. Barneko eta kanpoko erronda-zerbitzua emango da, egunez nahiz gauez.

- Eraikinean dauden segurtasun-kamerak monitorizatuko dira.

- Prebentziozko neurriak landuko dira, delitu-egintzak, kalteak edo arau-hausteak saihesteko higiezinean, elementu higigarrietan, elementu teknikoetan, instalazioetan edo apaingarrietan, bai eta eraikinera joaten diren edo eraikinean lan egiten duten pertsonengan ere.

- Eraikineko segurtasun-ekipamenduak erabiliko dira, segurtasunerako gailuen egoera eta funtzionamendu egokia eta instalazio mota guztien itxura aztertuko dira, eta argiztapen- eta kontrol-ekipamenduak piztuko eta itzaliko dira; arduradunari berehala jakinaraziko zaio hautemandako edozein anomalia edo gorabehera, txostenetan jasota uztearen kalterik gabe.

- Ustezko edozein alarma- edo ebakuazio-kasutan aktiboki parte hartuko da, larrialdietarako mekanismoak eta gailuak abian jarriz; gertatutakoaren berri emango da.

- Suteen aurkako segurtasun-funtzioak: ebakuazio-bidetzat hartutako bideetan oztoporik ez dagoela eta ibilbide osoan argiek puntu guztietan funtzionatzen dutela egiaztatuko da.

- Larrialdiko irteerako ateen inguruan ez da utziko oztoporik jartzen (aparkatutako ibilgailuak edota bestelakoak, esaterako).

- Lekuetan edo geletan, igogailuetan eta espazio txikietan bereziki, harrapatuta geldi daitezkeen pertsonak ebakuatzeko beharrezkoak diren maniobrak egingo dira. Oro har, larrialdi-kasuan edo aurrez hala eskatu delako, beharrezkoa den laguntza eman beharko dute.

- Delitu-egintzak edo arau-hausteak saihestuko dira.

- Bake Eder Ezagutza Zentroko instalazioen erabilera egokiari buruzko arauak betetzen diren kontrolatuko da.

4 LAN-ORDUTEGIA

Urteko egun guztietan egunean 24 orduz emango da zerbitzua.

5 LAN-PLANA

5.1 Garatuko beharreko jarduerak

Enpresa esleipendunak lan-plan bat aurkeztu beharko du, eta segurtasun-langileek ohiko egoeretan nahiz larrialdiko egoeretan beteko dituzten zereginak zehaztuko ditu.

Jarraitu beharreko jarraibideak, metodologia eta zerbitzuaren ezaugarriak zehaztu beharko ditu, bai eraikineko jarduera-orduei dagozkienak, bai gaueko orduei eta jaiegunei dagozkienak.

Era berean, baliabide teknikoen erabilera ere zehaztuko dute, bai instalazio berriei dagokienez, bai lehendik zeudenei dagokienez, Bake Eder Ezagutza Zentroko telebista-zirkuitu itxiko sistemen eta grabazio-gailuen zerbitzua emateko.

5.2 Giza taldea

Zentroan segurtasun- eta kontrol-lanak garatuko dituzten langile guztiek mediku-azterketa bat egin beharko dute urtero; emaitzak positiboa izan beharko du.
Enpresak urtero entregatu beharko du lanerako gai dela egiaztatzen duen mediku-agiria.
Langile berriak sartzen direnean, mediku-azterketa hori egin beharko dute, eta lanerako gai direla egiaztatu beharko dute lanean hasi aurretik.

Zaintzako langileek printzipio hauek bete beharko dituzte beren jardunean: osotasuna eta duintasuna, pertsonen babesa eta tratu zuzena; abusuak, bidegabekeriak eta indarkeria saihestuko dituzte, eta kongruentziaz eta proportzionaltasunez jokatuko dute, beraien ahalmenak eta eskura dituzten bitartekoak erabiltzerakoan.

Zaintzako langileek honako jokabide-arau hauek bete beharko dituzte lana egiterakoan:

- Ezarritako arauak eta jasotako aginduak edo jarraibideak arretaz bete beharko dituzte.

- Lanera sartzerakoan eta zerbitzua uzterakoan, puntualak izan behar dute, esleituta dituzten txandak eta ordutegiak kontuan hartuta; ezin izango dute lanpostutik alde egin, baldin eta justifikatutako arrazoiren bat ez badago. Kasu horretan, lanean ari diren zentroko segurtasun-arduradunari aurrez eta garaiz jakinarazi behar zaio.

- Isiltasun profesionala gorde behar dute, zerbitzua ematen duten lekuan dauden agintari, funtzionario, langile eta partikularrekin lotutako edozein informazioren gainean.

- Txukuntasuna eta duintasuna zainduko dituzte, bai eta zerbitzuak eskatzen duen irudi ona ere, eta behar bezala erabiliko dituzte enpresa esleipendunak ematen dizkien uniformeak, bereizgarriak eta baliabideak.

Kontratatutako zerbitzua matera bideratutako zaintzako langileek behar bezalako prestakuntza izango dute babestutako higiezin bakoitzean dauden segurtasun-sistemak osatzen dituzten baliabide teknikoak erabiltzeko, bai eta beren lanpostuek eskatzen dituzten funtzio orokorrak eta espezifikoak betetzeko ere.

Nortasun Agiri Profesionala izan beharko dute.

Prestakuntza psikologiko eta heldutasun egokiak izan behar dituzte, bai eta prestakuntza fisiko nahikoa ere.

Enpresa esleipendunak kontratu honen xede den zerbitzua matera bideratzen dituen langile guztiak prestatu beharko ditu autobabeserako eta larrialdietako planekin lotutako alderdi guztietan, bai eta laneko arriskuen prebentzioari, datuen babesari eta baliabide teknikoei dagokienetan ere; horretarako, prestakuntza- eta birziklatze-ikastaroak emango dizkie loteetan zehaztutako zentroetan ari diren langile guztiei.
Jokabidearekin, higiene eta irudi pertsonalarekin, eta abarrekin lotutako alderdiak lantzera ere bideratu beharko du prestakuntza.

Hizkuntza-eskakizuna
Biscaytik-ek, fundazio publikoa den heinean eta Bizkaiko herri-administrazioaren hizkuntza-politikarekin bat etorrita, lehentasuna emango die eraikinen ordutegi nagusian elkarrizketak euskaraz egiteko gaitasuna dutela erakusten duen hizkuntza-profileko pertsonak txertatzen dituzten proposamenei.

5.3 Gorabeheren kudeaketa

Zerbitzuaren kalitatearen jarraipena zehaztuko da, bai eta planifikatutako lanak egiterakoan sortutako gorabeherei eta horiek jakinarazteko bideei emango zaien tratamenduarena ere.

Honako larrialdi hauek gertatuz gero nola jokatuko duen definitu beharko du enpresa esleipendunak:

- Bonba-mehatxua jasotzen eta erregistratzen denean.
- Kontrolik gabeko sarrerak dauden egoeretan.
- Bidegabe sartzen direnean.
- Sutea dagoenean.
- Uholde-kasuetan.

- Substantzia leherkorrak edo arriskutsuak eduki ditzakeen bidalketa susmagarri bat jasotzen denean.
- Eraikinak ebakuatu behar direnean.

5.4 Gainbegiratzea, ikuskatzea eta kontrolatzea

Enpresa esleipendunak, zerbitzua kontratatutako baldintzen arabera ematen dela bermatzeko, behar adina ikuskapen egin beharko ditu, zaintzaile bakoitzak bere zereginak ongi egiten dituela egiaztatu ahal izateko. Jarduketa horiek eta behatutako hutsuneak idatziz jasoko dira.

Enpresa esleipendunak ikuskatzaile bat izendatuko du, eta hark egingo ditu aurkeztutako eskaintzan adierazten diren ikuskapenak; kontratatu duen administrazioak aurkitzeko moduan egon beharko du ikuskatzaileak eguneko hogeita lau ordutan, urteko 365 egunetan.

Ikuskapenetan hautemandako edozein gorabehera, zerbitzuaren funtzionamendu normala eragozten duena, berehala jakinaraziko zaio Fundazioaren arduradunari.

Enpresa esleipendunak ikuskapenetan emandako txostenen kopia bidali beharko da.

5.5 Hobekuntzak

Enpresa lizitatzaileek zerbitzuari buruzko hobekuntzak proposa ditzakete, gaur egungo egoera eta agiri honetako eskakizunak hobetzen badituzte, betiere.
Zerbitzuari benetako balioa emango dioten hobekuntzak izan behar dira, eta hobekuntzak diren aldetik halakotzat jasoko direnak.

6 ENPRESA ESLEIPENDUNAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

Enpresa esleipendunak zerbitzuko arduradun izendatuko du pertsona bat, eta pertsona hori izango da Fundazioarekin hitz egingo duena.

Kontratua gauzatu ahal izateko, esleipendunak nahitaez eman beharko ditu kontratuan adostutako moduan zerbitzua ondo gauzatzeko beharrezkoak diren ekipamendu eta baliabide osagarriak (telefono mugikorra, walkie-talkieak...).

Gaixotasunagatik, oporrengatik, zehapenengatik edo beste arrazoi batengatik langileak lanera joan ezin duen kasuetan, enpresa esleipendunak zerbitzua betetzeko konpromisoa hartuko du, zehaztutako zerbitzuetarako behar den langile kopuruari eutsiz.

Greba egiten bada, esleipenduna arduratuko da ezinbestekoak diren gutxieneko zerbitzuak bermatzeaz; indarrean dagoen araudiaren arabera negoziatuko dira horiek. Greba-aldietan, itundutako gutxieneko zerbitzu horiei dagokiona soilik ordainduko zaio esleipendunari.

Koordinazioa Biscaytik-ekin:

Enpresa esleipendunak solaskide iraunkor bat izendatuko du, kontratu honen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, bai eta sortzen diren gorabeherak konpontzeko eta lanen garapenean eraginkortasuna eta bikaintasuna lortzen saiatzeko ere.

Enpresa esleipendunak, hilero, zerbitzuan gertatutako gorabeheren laburpena entregatuko du, bai eta zerbitzua hobetzeko baliagarriak izan daitezkeen zerbitzuko langileen oharrak ere.

Konfidentzialtasuna:

Esleipendunak kontratuaren edukiari buruzko konfidentzialtasun zorrotzena gorde behar du nahitaez, bai eta Fundazioan segurtasun- eta zaintza-zerbitzua ematean jakin edo eskuratu dituen beste edozein informazio, datu, txosten edo aurrekariri buruzkoa ere.

Beraz, ezin izango du inola ere informazio konfidentzialik jakinarazi, zabaldu, argitaratu edo hedatu, ez eta hirugarren batzuei informazio hori jakinarazten, zabaltzen, argitaratzen edo hedatzen utzi ere.

Enpresak ziurtagiri hauek izan behar ditu: UNE-EN ISO 9001, UNE-EN ISO 14001 eta ISO 45001.

7 HUTSEGITEAK ETA ZIGORRAK

Hutsegiteak bi multzotan sailkatuta daude:

Hutsegite arinak:

Hutsegite arinak izango dira lanpostuaren zereginak noizbehinka ez betetzearekin lotutakoak. Besteak beste:

- Arrazoirik gabe eta aurrez zentroko arduradunari jakinarazi gabe lanpostura berandu iristea edota lanpostua uztea.
- Ezarritako lan-plana zati batean ez betetzea.
- Kontrol-txostenak entregatzerakoan atzerapenak izatea, adostutako egunen eta maiztasunen arabera.
- Langileen irudiarekin lotutako alderdietan (uniformea, higienea...) hutsegiteak izatea.

Hutsegite larriak:

Hutsegite larriak izango dira lanpostuaren zereginak sistematikoki ez betetzearekin lotutakoak. Besteak beste:

- Bi hilabeteko epean, 3 hutsegite arin baino gehiago egitea.

- Jakinarazten den unetik astebeteko epean bete gabe utzitako eginkizunak ez konpontzea.

Hutsegiteak jakinarazi eta hurrengo hilabetean emango dira zigorrak: hutsegite arinen kasuan, fakturazioaren % 2 izango da, eta hutsegite larrien kasuan, berriz, % 4.

I A ERANSKINA

KONTRATUETAKO DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA ***2016/679 ERREGELAMENDUA (EB) ETA DATUEN BABESARI ETA ESKUBIDE DIGITALEN BERMEARI BURUZKO 3/2018 DBLO***
Biscaytik Tratamenduaren arduraduna eta harremanetarako
Biscaytik Fundazioaren zuzendaritza kudeatzailea Zugatzarte 32, Getxo- 48930- Bizkaia
Tratamenduaren eragilea
Pertsona kontratista izango da.
Datuen babeserako delegatua
Bizkaiko Foru Aldundiaren Aholkularitza Juridiko, Informazioaren Segurtasun eta Datuen Babeserako Atala Kale nagusia, 25 – 48009 Bilbo
Pertsona interesdunaren eskubideak
Interesatuak/eraginpekoak bere datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, baita horiek tratatzeko mugak jartzeko edo horren aurka agertzeko ere, eta horretarako: Biscaytik Fundazioaren Erregistroa Horrez gainera, interesdunak eskubidea du dagokion kontrol-agintaritzari erreklamazioa jartzeko.
Tratamenduaren helburua
Bake Eder Ezagutzearen Zentroaren Sarrerak zaindu eta kontrolatzea
Datuen tratamenduaren jarduerak
Datu pertsonalen tratamenduak honako hauek barne hartuko ditu:

Datuak atzematea	
Datuak grabatzea	
Datuak egituratzea	
Datuak aldatzea	
Interesdunekin harremanetan jartzea	

Datuak biltegiratzea	
Datuak ateratzea (berreskuratzea)	
Datuak kontsultatzea	X
Datuak lagatzea / zabaltzea	
Datuak interkonektatzea (gurutzatzea)	
Datuak erkatzea (egiaztatzea)	
Datuak suntsitzea	
Tratamenduaren eragilearen informazio-sistemetan datuak kontserbatzea	
Datuen aldi baterako kopiak egitea	
Datuen segurtasun-kopiak egitea, datuen berreskuratzea	
Beste batzuk (*zehaztu*)	

Tratamenduaren zilegitasuna

1. DBEOren 28. art.
2. 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, sektore publikoaren kontratuei buruzkoa.
3. Pertsona kontratistarekin formalizatu beharreko kontratua.

Datu pertsonalen kategoriak

IDENTIFIKAZIO-DATUAK:	
NAN / IFZ / Identifikazio-agiri Ofiziala	X
Izen-abizenak	X
Posta-helbidea	
Telefonoa	
Sinadura	
Nazionalitatea	
Jaioteguna	
Jaioterria	
Adina	
Egoera zibila	
Helbide elektronikoa	

Sexua	
Gizarte Segurantzako zenbakia	
Irudia (argazkiak edo bideoak)	
Soinuak (audio-grabaketak)	
Sare sozialak (Twitter, Facebook, Instragram profilak, besteak beste)	
Seme-alaba kopurua	
Ezaugarri pertsonalak (altuera, pisua, taila, besteak beste)	
Beste batzuk (*zehaztu*)	
BESTE DATU MOTA BATZUK	
Prestakuntza-datuak (titulu akademikoak, diplomak, besteak beste)	
Lanbide-esperientzia -edo -historia	
Lanbidea	
Lanpostua edo lanbide-kategoria	
Lizentziak edo baimenak	
Elkarte, klub edo bestelakoetan kide izatea	
Jabetza edo ondasunak	
Ekonomikoak, finantzarioak edo aseguruenak (banku-datuak, kontu korrontea, txartel-zenbakia, zergei, soldatei, subsidioei buruzko datuak, besteak beste)	
Informazio komertzialerako datuak (jarduerak, negozioak, besteak beste)	
Transakzioei buruzko datuak (interesdunak eskainitako ondasun edo zerbitzuak, interesdunak jasotako ondasun edo zerbitzuak, besteak beste)	
Administrazioko arau-hausteei buruzko datuak	
Zigor arau-hausteei buruzko datuak	
Beste batzuk (*zehaztu*)	
DATUEN KATEGORIA BEREZIAK (DBEOren 9. art)	
Etnia- edo arraza-jatorria	
Iritzi politikoak	
Sinesmen erlijioso edo filosofikoak	
Sindikatu-afiliazioa	

Datu genetikoak	
Pertsona fisiko bat adiera bakarrean identifikatzera bideratutako datu biometrikoak	
Osasunari buruzko datuak	
Sexu-bizitzari edo sexu-joerei buruzko datuak	

Pertsona interesdunen kategorien deskribapena

Herritarrak	
Adingabeak *(14 urte, DBEDBLOren 7. art)*	
65 urtetik gorako pertsonak	
Egoiliarrak	
Bezeroak	
Hornitzaileak	
Atxikitako pertsonak edo kideak	
Jabeak edo errentariak	
Ikasleak	
Legezko ordezkariak	
Harremanetarako pertsonak	
Eskatzaileak	
Onuradunak	
Langileak	X
Enplegu-eskatzaileak	
Kargu publikoa duten pertsonak	

Datuen jatorria

Trataturiko datu pertsonalak hemendik datoz:

Interesdunak edo beren ordezkariak.	X
Administrazio publikoak *(Zehaztu)*:	
Erregistro publikoak *(Zehaztu)*:	
Sektore publikoko beste erakunde batzuk *(Zehaztu)*:	
Beste batzuk *(Zehaztu)*:	

Datuen hartzaileak

Ez da datu pertsonalak lagatzeko aukera aurreikusten

Datuak kontserbatzeko epea

Kontratuaren egikaritzea betetzeko beharrezkoa den denboran zehar kontserbatuko da, bere berme-epean zehar hedatu eta legezko edo kontratuzko betebeharrak bete.

Datuen tratamendua amaitzean datuak eskuragarri jartzea

Tratamendua amaitzen denean, *pertsona kontratistak* honako hauek egin beharko ditu:

Tratamenduaren arduradunari (edo horrek beren-beregi idatziz izendaturiko pertsonari) datu pertsonalak itzultzea, bai eta, bidezkoa izan ezkero, datuak gordetzeko erabilitako euskarriak ere, behin prestazioa beteta. Itzulketak berarekin ekarri behar du *pertsona kontratistak* erabilitako ekipo informatikoan dauden datu guztien ezabaketa osoa. Edozelan ere, *pertsona kontratistak* kopia bat gorde dezake, behar bezala blokeatutako datuekin, prestazioaren betearazpenetik erantzukizunak sortu daitezkeen bitartean.

Segurtasun neurri teknikoen eta antolakuntza-neurrien deskribapen orokorra

Informazio-sistemen kategorizazioa eta segurtasun-neurrien ezarpena, Segurtasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan arautzen duen 3/2010 Errege Dekretuaren arabera.

II. ERANSKINA

2023ko langileak

Langilea	Antzinatasuna	Lanaldiaren %	Kontratu mota	soldata
zaintzaile	2011/03/24	100	100	Konbenien arabera
zaintzaile	2022/10/05	100	100	Konbenien arabera
zaintzaile	1993/02/20	100	100	Konbenien arabera
zaintzaile	2010/07/09	100	100	Konbenien arabera
zaintzaile	2008/03/01	100	100	Konbenien arabera

Segurtasun Enpresen Estatuko Hitzarmen Kolektiboa aplikatzen da.